



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2009ko maiatzaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00

BUKATZEKO ORDUA: 20:50

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu hartzailea

Jon Carrera Jauregi

AZTERGAI ZERRENDA

1. Onartzea, egoki bada, Udalaren 2009ko aurrekontuari dagokion 2/2009 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egina dago.
2. Onartzea, egoki bada, Udalaren 2009ko aurrekontuari dagokion 3/2009 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientea. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egina dago.
3. Onartzea, egoki bada, urte batzuetarako kredituak eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean inputatuko diren gastuen banaketa.
4. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko Antilla hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko udal kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzuaren kontratazioa.



5. Onartzea, egoki bada, Iñaki Iturain zinegotziak (Aralar) aurkeztutako mozioa, Gazume mendian parke eolikoa jartzearen kontra.
6. Onartzea, egoki bada, alkatetzaren proposamena Gazumeko parke eolikoa gerarazteari buruzkoa eta energia eolikoari buruzko Lurralde Plan Sektoriala berritzeari buruzkoa.
7. Onartzea, egoki bada, Iñaki Iturain zinegotziak (Aralar) UEMAREN proposamenez aurkeztutako mozioa, Osakidetzak lanpostuen azken deialdi publikoan euskarari eman dion tratamendua dela-eta.
8. Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, lan arriskuen prebentzioaren eguna dela eta.
9. Eskariak eta galderak.

ESAN-EGINAK

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2009KO AURREKONTUARI DAGOKION 2/2009 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2009ko aurrekontuari dagokion 2/2009 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, idazkari-kontu-hartzaileak emandako txostena ikusita, eta Hazienda Batzorde Informatzaileak 2009ko maiatzaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal aurrekontuari dagokion 2/2009 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu transferentzien modalitatean egin dago eta 25.096 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da, ondoko arauen arabera:

- a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailletza
- b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
- c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
- d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.



- e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2009KO AURREKONTUARI DAGOKION 3/2009 ZENBAKIDUN KREDITUA ALDATZEKO ESPEDIENTEA. KREDITU ALDAKETA KREDITU GEHIGARRIEN MODALITATEAN EGINA DAGO.

Udalbatzarrak Udalaren 2009ko aurrekontuari dagokion 3/2009 zenbakidun kreditua aldatzeko espedientearen berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita eta Hazienda batzorde Informatzaileak 2009ko maiatzaren 20an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **SEI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Iturain (EB-B/Aralar) eta Garcia (EB-B/Aralar), guztira **BI ABSTENTZIO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA udal aurrekontuari dagokion 3/2009 zenbakidun kreditua aldatzeko espedienteari. Kreditu aldaketa kreditu gehigarrien modalitatean egin da eta 1.482.318 euroko kopurua du.

2.- Indarrean dagoen araudian xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da, ondoko arauen arabera:

- a) Erakutsita dagoen lekua: Idazkaritza-kontu-hartzailetza
- b) Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita.
- c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.
- d) Inpugnatzeko arrazoiak: Goian aipatutako Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak.
- e) Aurkezteko bulegoa: Udalaren sarrera erregistro nagusian, bulego orduetan (astelehenetik ostiralera 8:30etik 14:30era).
- f) Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.



Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, kreditu aldaketarako espedientea onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa eman duela honako arrazoiagatik: gehitu diren aurrekontu-partida gehienekin bat badator ere, badagoela partida bat onartzen ez duena: 90.000 euroko partida, Orioko Ordenamendu Urbanoaren Plan Nagusia idazteko zerbitzuak kontratatzeko, Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioak Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legea egokitzeko.

Karmele Belaskok hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela honako arrazoiagatik: gehitu diren aurrekontu-partida askorekin bat badator ere, ez dutela, inolaz ere, onartzen Gipuzkoako Foru Aldundiari 178.690 euro itzultzea 2008ko Udal Finantzaziorako Foru Funtsa dela eta, zeren eta, beren ustez, itzulketa hori inposizio hutsa baita.

Adierazten du, baita ere, proiektuak idazteko, obra zuzendaritzak egiteko eta horrelako beste partida asko gehitu behar izan direla eta horrek erakusten duela aurreikuspen-falta izan dela udal aurrekontua prestatzerakoan; hori dela eta, eskatzen du, aurrerantzean, kontu gehiago izatea aurrekontua idazterakoan eta beharrezko partida guztiak sartzea.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, URTE BATZUETARAKO KREDITUAK ETA EKITALDI EKONOMIKO BAKOITZEAN INPUTATUKO DIREN GASTUEN BANAKETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, idazkari-kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita eta Hazienda batzorde Informatzaileak 2009ko maiatzaren 20an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**; abstentzio botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**]:

ONARTZEA urte batzuetarako kredituen eta ekitaldi ekonomiko bakoitzean inputatuko diren gastuen banaketari buruzko txostena.

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere taldeak kontrako botoa eman duela honako arrazoiagatik: espedienteak herriarentzat onak diren partida ugari jasotzen baditu ere (arrauneko eta piraguismoko teknifikazio zentroa, udal hilerria, Ortzaika auzoko lanak...), motz geratzen da, bi aurrekontu-partida garrantzizko gehitzen ez dituelako: gaztetxea egiteko partida eta Orioko Herri Ikastolaren finantzaziorako partida.



Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du abstentzio botoa eman duela, Udalaren 2009ko aurrekontua onartzearen kontrako botoa eman zuelako; bestalde, adierazten du mahai gainean jarri nahi duela honako gaia: gizarteak bizi duen krisi ekonomiko nabarmenaren aurrean austeritate plan bat martxan jartzearen aukera aztertzea; azkenik, alkateari galdetzen dio ea etorkizuneko udal aurrekontuetan nahiko bitarteko ekonomiko izango den, gutxieneko gastu arruntak estaltzeko.

Alkateak hartzen du hitza eta honako hau erantzuten dio Iñaki Garcia zinegotziari: 2010eko udal aurrekontuan austeritate plan bat proposatuko duela, kontuan hartuta Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2010eko Udal Finantzaziorako Foru Funtsak izango duen diru-sarreraren jaitsiera.

4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ANTILLA HONDARTZAKO ZAINZTA, SALBAMENDU ETA LAGUNTZA ZERBITZUA ETA ORIOKO UDAL KANPINEKO IGERILEKUAREN ZAINZTA ETA BOTIKIN ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Lehiaketaren iragarkia 2009ko maiatzaren 15ean argitaratu zen 89. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Lehiaketara proposamenak aurkezteko irekitako epean, lehiatzaile bakarra aurkeztu da: Gurutze Gorria.

Kontratazio Mahaiak, baldintza administratibo partikularren orrian ezarritakoa kontuan hartuz, proposatzen du aipatutako zerbitzuen kontratua Gurutze Gorriari adjudikatzea, berak aurkeztu duela proposamen bakarra eta baldintza orrian ezarritakoa betetzen duela.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2009ko maiatzaren 26an egindako plikak irekitzeko ekitaldia.

2.- BEHIN-BEHINEKOZ ADJUDIKATZEA Orioko Antillako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua eta Orioko Udal Kanpineko igerilekuaren zaintza eta botikin zerbitzua GURUTZE GORRIARI; kontratuaren adjudikazioaren urteko prezioa 89.118 eurokoa izango da, gehi 14.259 euro, %16ko BEZari dagozkionak (gastu orokorrak eta mozkin industrialak barne).

Behin-behineko adjudikazio hau **BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIO** bihurtuko da, behin adjudikaziodunak aurkezten duenean dagozkion dokumentazioa, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen iragarkia argitaratu eta hamabost laneguneko epean.

3.- JAKINARAZTEA erabaki hau erakunde adjudikaziodunari, jakin dezan eta horren ondorioz joka dezan, dagozkion lege errekurtsoak azalduz.



5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IÑAKI ITURAIN ZINEGOTZIAK (ARALAR) AURKEZTUTAKO MOZIOA, GAZUME MENDIAN PARKE EOLIKOA JARTZEAREN KONTRA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak, hitzez hitz, honela dio:

GAZUME MENDIAN PARKE EOLIKO BAT JARTZEAREN KONTRA AGERTZEKO MOZIOA

Ernio eta Gazume mendien inguru hori, dituen ezaugarri bereziengatik eta babestutako eremua delako, balio izugarria duen ingurune natural bat da. Gipuzkoako bihotzean kokatua dago, Gipuzkoako mendien artean bisitatuena da eta gipuzkoarrantzat aparteko garrantzia dauka, bereziki Oriako bailaran eta Urola erdian eta Urola kostan. Beraz, zaindu beharreko ingurunea da, hainbat arrazoiengatik:

- 1.- Arrazoi kultural eta historikoengatik, oso ondare aberatsa delako.*
- 2.- Eskaintzen duen paisaia zoragarriagatik.*
- 3.- Interes Komunitarioko Gune izendatua delako, Natura 2000 sarearen barruan. Bertan, galtzeko arriskuan zeuden babestutako habitat bereziak daudelako.*
- 4.- Hegazti migratzaileen pasagunea delako.*

Ez da ulertzen, ezaugarri garrantzitsu horiek guztiak biltzen dituen gune batean parke eoliko bat jarri nahi izatea. Ez da ulertzen, horrek ingurumenean sortuko lukeen kalte konponezinagatik. Lurrak mugitzeak, hango bideak zabaltzeak eta bide berriak egiteak eta lan horiek sortuko luketen zaratak kalte zuzena eragingo lieke ingurune hauskor horretan babestuta dauden habitat bereziei. Parke eoliko horretan aurreikusten den energia maila sortzeak ez du, inola ere, konpentsatzen ingurunean sortuko dituen eragin kaltegarri horiek guztiak.

Hori dela eta,

Kontuan hartuta Gazume Interes Berezikoko Gunea dela eta ZEC izendapena lortzeko Kudeaketa Plana aurreratua dagoela, Orioko Udalak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari Gazume inguruan Parke Eolikia ezartzeko proiektua eten dezan. Prozesuaren emaitzak jakin arte proiektuaren adjudikazioa uztea eskatzen dugu, kalte konponezinik gertatu aurretik.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **LAU ABSTENTZIO BOTO**]:



ONARTZEA Iñaki Iturain zinegotziak (Aralar) aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATETZAREN PROPOSAMENA GAZUMEKO PARKE EOLIKOA GERARAZTEARI BURUZKOA ETA ENERGIA EOLIKOARI BURUZKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA BERRITZEARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; proposamenak, hitzez hitz, honela dio:

ORIOKO UDALAKO AKORDIOA, GAZUMEN PARKE EOLIKOA EZARTZEA ETETEA ETA ENERGIA EOLIKOAREN LURRALDEAREN ARLOKO PLANA BERRITZEARI BURUZKOA

1. *Orioko Udalak dei egiten dio Eusko Jaurlaritzari 2002ko martxoaren 14an 104/2002 dekretuaren bidez onartutako Energia Eolikoaren Lurraldearen Arloko Plana berritu dezan, berau egiterako orduan garai berrietara egokitutako bai teknologia eta bai ingurumen ikuspegiko irizpide berriak erabiliz eta bereziki parke naturalak errespetatuz, Euskal Autonomi Erkidegoan energia eolikoaren aprobetxamendua ahalik eta handiena izatea bideratzeko, eta betiere plangintza eta proiektu bakoitzean ahalik eta ingurumen-berme handienak erabilita. Ondorioz, Gipuzkoako gune natural babestuetan parke eolikoak eraikitzea ez dadila ahalbidetu.*

2. *Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, kontuan hartuta Gazumeko parke eolika kokatzeko guneak daukan sentsibilitate eta singularitate berezia, ahalik eta zorrotzen aztertu dezala proiektu horrek zer-nolako ingurumen-ondorioak izango dituen eta bitartean Gazume enplazamenduan Parke Eolika ezartzeko proiektua eten dezala. Gazume Interes Berezikoko Gunea izaki eta kontutan hartuta "Babes Eremu Berezia" izendapena lortzeko Kudeaketa Plana aurrera doala, hura etetea eskatzen dugu, prozesuaren emaitzak jakin arte, kalte konponezinik egon ez dadin.*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA alkateak aurkeztutako proposamena, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Leire Zinkunegi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela Gazume mendiko parke eolikoari buruzko bi moziotan, honako arrazoiagatik: orokorrean bi mozioetako edukiarekin bat badatoz ere, faltan bilatzen dutela bi testuetan zuzenean exijitzea Eusko Jaurlaritzari ez baimentzeko parke eolikoak ez Gazume mendian eta ez Euskal Herriko beste edozein tokitan, zeren eta parke eoliko horiek negozio huts-hutsa baitira, kapitalismoaren



defentsa irmoa irudikatzen dutenak eta, gainera, eragin izugarria daukate ingurumenean.

7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, IÑAKI ITURAIN ZINEGOTZIAK (ARALAR) UEMAREN PROPOSAMENEZ AURKEZTUTAKO MOZIOA, OSAKIDETZAK LANPOSTUEN AZKEN DEIALDI PUBLIKOAN EUSKARARI EMAN DION TRATAMENDUA DELA-ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak, hitzez hitz, honela dio:

ORIOKO UDALAK ONARTZEKO MOZIOA

UEMAREN Zuzendaritza Batzordeak proposatuta

1.- Lehenik eta behin, Orioko Udalak kezka eta harridura adierazi nahi ditu Osakidetzak abian jarritako azken lanpostu publikoen deialdiaren harira. Deialdi horrek Urola-Kostako herri askotan eragiten du, hainbat anbulatoriotan (gutxienez, Azkoitikoan, Azpeitikoan, Zumaiakoan eta Zarauzkoan). Zoritxarrez, azken deialdiaren ondorioz, anbulatorio horietan lanean hasiko diren langile batzuek ez dute euskararik jakin beharko. Horren ondorioz, orain arte bezala, erdaldun elebakarrek tokia izango dute anbulatorio horietan, eta horrek ez du bermatuko osasun zerbitzua euskaraz jasotzeko eskubidea. Atzerapauso handia da hori, bere garaian Osakidetzak onartutako plana ez baita beteko, eta euskaldunok bigarren mailako herritar gisa geratzen baikara. Berrito ere osasun zerbitzuak erdaraz jasotzera kondenaturik gaude, Osakidetzak ez baitigu ematen zerbitzua euskaraz jasotzeko bermerik.

2.- Bigarrenik, Orioko Udalak dei egin nahi die Osakidetzako buruei eta erantzule politikoei euskaldunen hizkuntz eskubideak kontuan har ditzaten, sindikatu korporatibista erdaltzaleen interesen aurrean. Izan ere, euskaldunon hizkuntz eskubideak eta CC.OO. eta Sache sindikatuen interesak balantzan jartzean Osakidetzak azken horien alde egin du. Orioko Udalak argi eta garbi esan nahi du euskaldunak bagarela nor herri euskaldunetako osasungintzaren gainean iritzia emateko eta eskubideak aldarrikatzeko. Beraz, Orioko Udalak Osakidetzari eskatzen dio euskarak merezi duen tokia izan behar duela eskualdeko anbulategietan, eta euskara ezin dela geratu beste hizkuntza baten mende.

3.- Hirugarrenik, Orioko Udala kezka adierazi nahi du deialdietan euskarak izan duen balorazio eskasarekin. Izan ere, euskararen balioa ez da administrazio elebidun batean izan beharko lukeena, ez barne promozioetan, ez lanpostu deialdietan. Horren ondorioz, bihar gure eskualdeko eta beste gune euskaldunetako anbulatorio askotan langile erdaldunak has daitezke lanean. Kasurik onenean, 2010eko abenduan egiaztatu beharko dute euskara maila jakin bat; txarrean, hori ere ez. Erdaldun etorri eta erdaldun jubilatutako ahal izango dira, edo, kasurik onenean, diru publikoaren bizkar sartuko dira euskalduntze prozesuan. Osakidetzako arduradunek nahiago izan dute hori lanpostu horietan langile euskaldunak jarri baino, eta hori guztiz salagarria da Euskal Herrian eta, bereziki, udalerrri euskaldunetan.



4.- Laugarrenik, Orioko Udalak ez du alde batera utzi nahi nazio mailako irakurketa. Izan ere, eskualdean gertatutakoa ez da kasu bakana, Hego Euskal Herriko udalerrri euskaldun askotan gertatzen baita gauza bera. Euskararen gaineko betekizunik ez edukitzeak agerian uzten du urrun gaudela Euskararen Aholku Batzordeak “Euskara 21” txostenean adierazitako asmoetatik: “Hizkuntza batek, garatuko bada, bera nagusia den esparruak behar ditu. Arnasgune horietan, eta ez beste inon, bilatu beharko du biziberritu nahi den hizkuntzak helduleku nahikorik, bai belaunaldiz belaunaldiko transmisioari, bai hizkuntzaren funtzio komunikatiboari, bai hizkuntzaren balio erreferentzialari dagokienez. Arnasgune horiek zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezean, alferrik izango da, seguruenera, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehenasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasguneei XXI. mende hasierako hizkuntza politikan”. Errealitateak erakutsi digu hitzak hitz direla eta errealitatea oso bestelako kontua dela.

5.- Bosgarrenik, Orioko Udalak euskaraz bizitzeko nahia eta premia aldarrikatzen ditu berriro ere, eta, horren harira, eta, udalerrri euskalduna izatearekin zintzo eta koherente jokatzeko aldera, Osakidetza irimo eskatzen dio gure herritarrei osasun zerbitzua ematen dieten langile orok euskaldunak izan behar dutela eta hori betetzeko eskura dituen neurri guztiak har ditzala.

6.- Azkenik, Orioko Udalak dei egiten die eskualdeko euskaldunei Urola-Kostako anbulatorioetan eta gainerako osasun zentroetan zerbitzua euskaraz eskatzeko eta zerbitzua euskaraz jaso ezean erreklamazioak jartzeko, bai osasun zentroetan bertan (hango erreklamazio orrietan), bai bestelako erakundeetan ere (adibidez, Behatokian edo/eta UEMAn). Euskaldunok ez dugu zertan isilik geratu horrelako injustizia baten aurrean. Ezin gaituzte euskara baztertu eta gaztelaniaz hitz egitera behartu, beren gabeziengatik, interes korporatibo eta politikoengatik edota udalerrri euskaldunetan euskara behar bezain tinko ez defendatzeagatik. Bide horretan, Orioko Udalak dei egiten die euskaldunei euskaldun koherente gisa jokatzera eta euskaldunen aurkako hizkuntz politika beren egunerokotasunean salatzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Rodríguez (PSE-EE-PSOE), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzio botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta García (EB-B/Aralar), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

ONARTZEA Iñaki Iturain zinegotziak (Aralar) UEMAn proposamenez aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

8.- KARMELE BELASKO, JOSEBA GOIBURU ETA LEIRE ZINKUNEGI ZINEGOTZIEK AURKEZTUTAKO MOZIOA, LAN ARRISKUEN PREBENTZIOAREN EGUNA DELA ETA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du; mozioak, hitzez hitz, honela dio:



Apirilaren 28an Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dugu. Lan segurtasun eta osasunaren defentsan erreferentea da eta, eskubide hau urratuta dugun heinean, aldarrikapen eta borroka eguna ere bilakatu behar dugu.

Euskal Herria bezalako herri txiki batean eskandalu hutsa da enpresetan urtero-urtero izaten diren istripu, gaixotasun eta heriotza datuak; urtez urte 135.000 istripu inguru, 100 heriotza baino gehiago, lan gaixotasun baten ondorioz hiltzen diren milaka langile eta bizitza osorako ezintasun iraunkorraz beste horrenbeste geratzen dira.

2007. urtean lan Istripuetan hildakoak 125 izan ziren; 2008. Urtean 112 eta aurten, jadanik, 20 langile hil dira.

Datu hauek izugarritzkoak dira. Azken linean, Langile hauek euren eta euren familien bizibidea ateratzen galdu dute bizitza. Gure gizarte garatu honetan, ditugun aurrerapen teknologiko guztiekin, datu hauek onartezinak dira. Horregatik, arazo sozial handi baten aurrean aurkitzen gara.

Lan egiten dugunon segurtasuna minimoki ezin badugu bermatu zerbait larria gertatzen ari da gure gizartean. Eta ezinbestekoa da arazo sozial honen oinarrietara jotzea. Azkeni urte hauetan lan antolaketan eredu berriak martxan jartzen ari dira. Besteak beste, malgutasun handiagoa eta lan erritmo intentsiboagoak. Hauek langilearen nekea handitu eta arreta galtzera eramaten dute, lan-istripua edukitzeko arriskua igoz. Hau da, langilearen esplotazioa handitzen den heinean, lan-istripuaren probabilitatea biderkatu egiten da.

Lan-istripuen atzetik bi arrazoi nagusi daude. Alde batetik, enpresariak etekina ateratzeko grina beste edozein helburuen gainetik jartzen dutelako. Sarritan aipatzen da segurtasunean gastatzen dena ez dela kostua, inbertsioa baizik. Zoritxarrez, gauzak ez dira horrela izaten, batez ere, enpresari askok epe motzeko etekin ekonomikoei begira daudelako. Eta asmo onak albo batetara gelditzen dira, tartean Jan osasuna, ahalik eta etekin borobilenak lortzeko.

Eta bestetik, Euskal Herrian dugun arazoa gure Lan Harremanetarako Esparru propioa eraikitzeko, bi Estatuaren inposaketari aurre egiteko. Hau, ezinbestekoa dugu gure lan harremanak antolatzeko, lan erreformei aurre egiteko eta bide batez lan-istripuak gutxitzeko.

Hau horrela izanik, Udal Osoko Bilkura honek ondorengo adierazpena egiten du:

1.- Lan istripuei aurre egiteko lan harreman eta prebentzio eredu ezberdinak beharrezkoak dira; osasuna, negozioaren orde, eskubidea eta lehentasuna izan dadin, arriskuei eta kalteei aurre egiteko eredu publiko, unibertsal, kalitateko eta partehartzailea aldarrikatu behar dugu.

2.- Udal honek ez du inolako obra edo zerbitzurik kontratatuko, lan arriskuen prebentzioko atorra bete ez duelako, gertaera larri edota oso larriagatik zigortu duten inolako enpresarik.



3.- Udalerrian Jan istripu jamia ematen bada, Udalak gertatutakoa argitzeko behar diren bitartekoak jarriko ditu, besteak beste, istripua gertatu den enpresako zuzendaritzarekin bilera bat eskatzea, istripuari buruzko informazio guztia eman dezan.

4.- Lan-istripu hau argitzeko bide judiziala irekitzen bada, Udal honek herri-akusazio moduan aurkezteko konpromisoa hartzen du.

5.- Azkenik, udalak apirilaren flan antolatu diren mobilizazioekin bat egiten du eta bide batez herritar guztiei deitzen die bertan parte hartu dezaten.

2009ko apirila.

Alkateak hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak (EAJ-PNV) kontrako botoa emango diola mozioaren onarpenari eta, horren ordez, mozio alternatibo bat aurkeztuko dutela; mozio alternatiboak honela dio, hitzez hitz:

Apirilaren 28a Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna

Lan segurtasun eta osasunaren arazoak larritasun eta ondoriorik handienak dituzten arazoan artean daude, eta gizarte modernoei eragiten diete. Lanpostuetan hainbat motatako berezko istripu daudela ez da zalantzan jarri daitekeen zerbait, lanbide eta sektore batzuetan bereziki; hala ere, garrantzitsua da istripu horien prebentzio posiblearen inguruan hausnartzea eta egun gertatzen diren laneko istripu eta lanbide gaixotasun asko ekiditea posible da. Lanarekin lotutako gaixotasun eta istripuak ekiditea, beraz, izan behar da Laneko Segurtasun eta Osasun programen helburua.

Laneko Segurtasun eta Osasuna eskubide bat izanik, arlo honetan esku hartzen duten eragile guztiek (Administrazio Publikoak, enpresaburuak, lantegiak, gizarte eragileak eta abar) arazo horrekiko duten erantzukizuna eta konpromisoa beren gain hartu behar dute.

Laneko ezbehar tasa murriztea lehentasuna duen zerbait da guretzat, izan ere, langileentzako egoera pertsonal eta familiar dramatikoak eragiten baititu eta ondorioz laneko osasuna eta segurtasuna prebenitzeko politikaren alde egiten dugu eta egingo dugu, langileen beharrezko babes mailak bermatu ahal izateko.

Horretarako, ezinbestekoa da prebentzioa, kontzientzia harraraztea eta sentiberatzea eta prestakuntzaren esparruetan laneko prebentzioaren araudia zehatz-mehatz betetzea.

Hau horrela izanik, Orioko udalbatzarrak ondorengo adierazpena egiten du:

1. Laneko Segurtasun eta Osasuna, enpresaburu, langile, erakunde publiko eta gizartearentzat balio ekonomiko eta sozial bezala hautematen da.



2. Beharrezkoa da eragile ekonomiko eta sozialen eta administrazio publikoen artean ahaleginak eta lana bateratzea. Erakundeek era koordinatu eta integratuan jardun behar dute laneko segurtasun eta osasun arloan.

3. Ikuskapen, kontroi eta gainbegiratze lanen eraginkortasuna areagotzea bilatzen duten neurri eta ekimenak babestea eta sustatzea.

4. Eskaintza publikoko prozesuetan segurtasuna eta osasuna zaintzera bideratutako irizpideak ezartzea.

5. Administrazio publikotan Lan duinean, segurtasunean, elkarrekiko errespetuan, aukera berdintasunean, elkarlanean eta zerbitzuaren kalitatean oinarritzen den prebentzioaren kultura gara dadin sustatzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, talde mistoko zinegotziek aurkeztutako mozioa bozkatzeko da, honako emaitzarekin:

ALDEKO BOTOA EMATEN DUTE Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar), Garcia (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA) zinegotziek, guztira **SEI ALDEKO BOTO**, gehiengo absolutua, beraz.

KONTRAKO BOTOA EMATEN DUTE Redondo (EAJ), Ostolaza (EAJ), Genoba (EAJ) eta Del Hoyo (EAJ) zinegotziek, guztira **LAU KONTRAKO BOTO**.

ABSTENTZIO BOTOA EMATEN DU Rodriguez (PSE-EE-PSOE) zinegotziak, guztira **ABSTENTZIO BOTO BAT**.

Bozketaren emaitza ikusita, Udalbatzarrak **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU: ONARTZEA** Karmele Belasko, Joseba Goiburu eta Leire Zinkunegi zinegotziek aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

Segidan, alkateak, EAJ-PNVren izenean, aurkeztutako mozioa bozkatzeko da eta Udalbatzarrak **AHO BATEZ ONARTZEN DU**, guztira **HAMAIIKA BAIEZKO BOTO**, goian jasota dagoen bezalaxe.

Emandako botoa azaltzeko, Karmele Belasko zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du, batetik, gaurko egunez 31 lagun direla dagoeneko aurten lan-istripuan hildakoak; eta, bestetik, sufritzen dugun krisi ekonomiko larriak ondorio latzak dituela (prekarietatea, estres-arazo handiagoa, loa hartzeko zailtasunak eta abar) eta, beraz, arduraz jokatzeko deia egiten duela.

9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta galdetzen du ea zertan diren falta diren udalbatzarraren akten zirriborroak; idazkariak erantzuten dio esanez espero duela laster izango direla prest eta, egin ahala, banatuko zaizkiela zinegotzietatik, pilatzen utzi gabe.



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ohiko bilkura
2009/05/28

Segidan, alkateari galdetzen dio ea zer iritzi duen EUDELeK bidali duen idatziari buruz, non adierazten den aurtan eta hurrengo urtean nabarmen jaitsiko dela Udal Finantzaziorako Foru Funtsa.

Ondoren, alkateari galdetzen dio aurtengo Bisiguaren Egunari eta Txuleta-ren Egunari buruz, eta adierazten du ez duela ulertzen zer onura ekartzen ote dioten ospakizun horiek Orioko herritarrari; beraz, eskatzen dio alkateari bi ospakizun gastronomiko horiek ez egitea.

Bukatzeko, alkateari galdetzen dio Alemaniara parke publikoak ikustera egin duen bidaiari buruz eta aurpegiatzen dio kanpotik jakin behar izan dutela horren berri.

Azkenik, Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta alkateari aurpegiatzen dio Bisiguaren Egunaren ospakizuna egitea, festa hori Udalaren gehiengo politikoaren iritzia- ren kontra antolatu baita; adierazten du, baita ere, ospakizun gastronomiko mota hori ez dela batere herrikoia, herriko jendeak ez baitu parte hartzen.

Ez zen eskari eta galdera gehiagorik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,